

Munstroek ere pixa egiten dute ohean


Testua: Pello Añorga

Irudiak: Jokin Mitxelena

IX. ETXEPARE SARIA (2015).

ISBN 978-84-7681-914-2. Pamiela

Kartoi gogorrean koadernatua. 29 x 21 cm. 38 or. 14 €



Pijama jantzi eta,
zirkuko musika-kaxa eskuetan,
Valentinak esaten zuen
«**Munstram-munstrom-munstrum**»,
eta joaten zen munstroen
lurraldera jolastera munstroekin [...]

MUNSTROEK PIXA EGITEN DUTE OHEAN liburuak keinu bat egiten dio beste liburu bati: Maurice Sendak-en *Piztiak bizi diren lekuan* delakoari. Liburua 1963an argitaratu zen eta hasieran galarazia egon arren, agudo, bere lekua aurkitu zuen haur literaturaren korrante psikologikoaren barruan. Spike Jonze-k ere, berriki, 2009an, filma bat eskaini zion.

Album honetan, aipatutako album hartan ez bezala, neska bat da protagonista nagusia, eta gustatuko zaio munstroen lurraldera joatea, eta, munstroak lagun, munstrokeriak egitea, helduen mundua trasgrediturik. Dena den, Sendak-en liburuan ez bezala, munstroen lurraldea agertuko da hemen ez leku dibertigarri gisa bakarrik, baita amets gaiztuen leku ikaragarri modura ere. Munstroek eta haurrek ohe berean lo egiten dute eta, hortaz, ez da harritzekoa, haiek ere haurrak bezain beldurtiak izatea. Noski, Valentina

neskato ausartak laguntza eskainiko die munstroei eta, azkenean, puzean, puzean eta puzean doan beldurra, barre algara eta lasaitasun bihurtuko da.

Testuari eta irudiei buruz esan (epaimahaikideen hitzetan): «Elkar josita datozela, jolasa motor eta emozioa kide direla» ...«Musika darie hitzei eta bizia irudiei»... « Irudien plano eta perspektibak ere bat datoz testuaren erritmoarekin» . . .

«Garatzen doan kontaktari aniztasuna eta interes bisuala eranstean dizkiote».

Pello Añorga idazlea eta Jokin Mitxelena ilustratzailea 80. hamarraldiko erdialdean hasi ziren elkarlanean eta orduetik askotan osatu dute idazle ilustratzaile bikotea. 2006an *Gerlari handia* (argitaletxe honetan argitaratua) lanarekin ere Etxepare saria irabazi zuten.

■ **Gaia:** Gaueko beldurrak. Mamuak, Txiza egiteko kezka, autonomia, objektu transakzionalak...

■ **Adin egokia:** 5 urtetik aurrera.

■ **Nabarmenezko moduko datuak:** Beldurra, misterioa, hizkuntzarekiko jolasa, umorea... helduek boz gora haurrekin partekatzen liburu aproposa.

Pello Añorga, Oiartzun, Gipuzkoa (1956)

1986an ikastola utzi eta ipuinak kontatzen hasiko da, aitzindari izango dena bibliotekako "ipuin orduarekin". Eskoriatzako Irakasle Eskolan (gaur egun Mondragon Unibertsitateko HUHEZI), Haur Liburu Mintegiaren sortzaileetako bat izango da, Galtzagorri sortzen, Irakur Gidak plazaratzen . . . eta ipuin kontaktari buruzko ikastaroak ematen.

Idazle modura, haur literatura landu du, sari batzuk lortu dituelarik: ETXEPARE SARIA: *Gerlari Handia* (Pamiela,2008); JUUL saria:

Pottokoren usaina (Elkar,2009; EUSKADIKO SARIA: *Jenio gaiztoa* (Aizkorri, 2008; JUUL SARIA: *Augusturen botila* (Edebe, 20015).

<http://www.pelloanorga.weborria.com/>

Jokin Mitxelena, Donostia (1962)

Arte Ederren ikasketen azken urteetakoak dira bere lehen lanak.

Irakaskuntzan hamar urtez ihardun ondoren, Alemaniako Koblenza hirira mugitu zen 1995ean bere familiarekin. Ordurako finkatu xamarra zeukan bere ahalegina Euskal Herriko argitaletxe gehienetan. Harrez gero, haur liburu autoretza du bere bizibidea, dela ilustratzaile edo dela, tarteka bada ere, idazle modura . Espainia, Alemania eta Austriako argitaletxeentzat 130 liburutik gora ilustratu ditu, horietako bosten egile ere delarik. Lortutako sariak: JUUL SARIA (edizio guztietan), ETXEPARE SARIA (2007, 2015), ILUSTRAZIOAREN EUSKADI SARIA: *Ipuin-kontalariaren lapikoa* (Aizkorri, 2010).

http://www.euskonews.com/0637zkb/elkar_eu.html

Tel.: 948 326 535 / soltxate@pamiela.com

www.pamiela.com

 **Pamiela**
etxea